MERKATARITZAREN ETA OSTALARITZAREN SEKTOREAN DIGITALIZAZIOA SUSTATZEKO PROGRAMA.

HELBURUA: Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea digitalizatzeko prozesua bultzatzea eta indartzea, sektore horien ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko bideetako dat den aldetik.

ONURADUNAK:

Agindu honetan araututako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte pertsona fisikoak, nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeak eta pertsona juridikoak, baldin eta haien jarduera merkataritza edo ostalaritza sektorean badago.

BALDINTZAK:

Laguntza jaso ahal izateko baldintza hauek ditu:

1. Enpresaren zerga-egoitza eta lantokia Gipuzkoan kokaturik egotea.
2. Enpresak jarduten duen sektorea merkataritza edo ostalaritza izatea.
3. Zerga-bidearen bidez izapidetutako eskaeraren dataren aurreko 15 egun naturaletan TicketBAI altako 15 fitxategi gutxienez Gipuzkoako zerga- administrazioak jaso izatea.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK:

Enpresa bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa mila eurokoa (1.000€) izango da, TiketBAI sistema eta softwarea ezartzeko gastuei aurre egiteko laguntza izanik.

EMATEKO PROZEDURA

1. Elkarrekiko lehiarik gabe onartuko dira laguntzak, aurrekontua zuzkidura agortu arte.
2. Eskaera ebazterako orduan kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera eta horren arabera banatuko dira funtsak, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.
3. Diru-laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, aurreko atalean aipatzen den deialdi publikoaren bidez, zein Diputatuen Kontseiluan onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita.

AURKEZPEN EPEA

Eskabideak aurkezteko epea, 2021eko irailaren 15etitk 2021eko azaroaren 30eko goizeko 12:00ak arte, edo aurrekontu zuzkidura agortu arte.